




# Nafarroako Kontseiluaren urteko kontuak, 2022



2023ko ekaina



CÁMARA DE  
COMPTOS  
DE NAVARRA  
NAFARROAKO  
KONTUEN  
GANBERA



## AURKIBIDEA

I. SARRERA .....	3
II. HELBURUAK ETA IRISMENA .....	4
III. IRITZIA .....	5
III. 1 Urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzako iritzia .....	5
III.2 Legeria betetzeari buruzko fiskalizazio-iritzia .....	5
IV. IRITZIAREN OINARRIA .....	6
V. AUDITORETZAKO FUNTSEZKO GAIAK .....	7
VI. NAFARROAKO KONTSEILUAREN ERANTZUKIZUNA .....	8
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA .....	9
VIII. AURREKO TXOSTENETAN EMANDAKO GOMENDIOEN JARRAIPENA .....	10
1. GEHIGARRIA. NAFARROAKO KONTSEILUAREN 2022KO URTEKO KONTUEN LABURPENA .....	11
1.1 2022ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria .....	11
1.2 Aurrekontuaren emaitza .....	11
1.3 Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria .....	12
1.4 Egoeraren balantzea .....	12
1.5 Ekonomia eta ondare emaitzako kontua .....	13
1.6 Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria .....	13
1.7 2022ko eskudiru-fluxuen egoera-orria .....	14
2. GEHIGARRIA. NAFARROAKO KONTSEILUA .....	15
3. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA .....	16
4. GEHIGARRIA. OHARRAK ETA FISKALIZAZIOAREN AURKIKUNTZA GEHIGARRIAK .....	17





## I. Sarrera

Kontuen Ganberak, ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2023rako jarduketa-programari jarraituz, Nafarroako Kontseiluaren (aurrerantzean, Kontseilua) 2022ko ekitaldiko urteko kontuak fiskalizatu ditu.

Azterketa lana 2023ko martxoan egin du lantalde batek, auditoriako teknikari batek eta auditore batek osatuak. Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen lankidetzara ere izan dute.


Jarduketa honen emaitzak Nafarroako Kontseiluko lehendakariari azaldu zitzaizkion, kasua bada egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkezteko, Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Jarritako epea iraganda, ez zen alegaziorik aurkeztu.

Kontseiluko langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntza dela eta.

Kanpo kontroleko organoen auditoretzari buruzko araudiaren azken aldaketan ondorioz, txosten honek eta 2021eko ekitaldiari buruz eman genuenak egitura desberdina dute zenbait alderditan.

Txosten honetako datu guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Emandako datuek eta ehunekoek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez biribildutako datuen batura.





## II. Helburuak eta irismena

Finantzen eta legezotasunaren fiskalizazio bat egin da Kontseiluaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuez, honako hauei buruzko iritzia emateko:

- Ea 2022ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten duten Kontseiluaren 2022ko abenduaren 31ko ondareari eta finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

- Ea Kontseiluaren 2022ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozen, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Lanaren norainokoa Nafarroako Kontseiluaren 2022ko urteko kontuak dira, zeinek kontabilitateko egoera-orri hauek barne hartzen baitituzte:

- Aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria.
- Egoeraren balantzea.
- Emaitza ekonomiko eta ondarekoaren kontua.
- Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria
- Eskudiru-fluxuen egoera-orria.
- Oroitidazkia.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2022ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko beharrezko egiaztapenak egin dira, ezarritako helburuak hobeki lortzeko.





### III. Iritzia

Nafarroako Kontuen Ganberak, ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz, Kontseiluaren urteko kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: 2022ko abenduaren 31ko balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoaren kontua, ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria, aurrekontuko likidazioaren egoera-orria eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion memoria. Orobat fiskalizatu du Kontseiluak 2022ko ekitaldian legeria bete ote duen.

#### III. 1 Urteko kontuei buruzko finantza-auditoretzako iritzia

Gure iritziz, 2022ko ekitaldiko urteko kontuek, alderdi aipagarri guztietan, irudi zehatza erakusten dute Kontseiluaren ondareari eta finantza-egoerari dagokienez 2022ko abenduaren 31n, bai eta data horretan amaitutako ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko arau-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko eta aurrekontuen inguruko printzipio eta irizpideei jarraituz.

#### III.2 Legeria betetzeari buruzko fiskalizazio-iritzia

Gure iritziz, egindako lanaren norainokoa kontuan hartuta, Kontseiluaren 2022ko ekitaldiko jarduketak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta urteko kontuetan jasotako informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.





#### IV. Iritziaren oinarria

Kanpo-kontroleko erakunde publikoek erabakitako funtsezko fiskalizazio-printzipioen arabera egin dugu fiskalizazioa, eta, zehazki, finantza-fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 200 arauan eta legeria betetzearen fiskalizazioari buruzko ISSAI-ES 400 arauan ezarritakoaren arabera; halaber, kanpo-kontroleko organoen fiskalizazio-gida praktikoak (GPF-OCEX) erabili ditugu. Arau horien indarrez ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatzen dira, gure txosteneko “Kontuen Ganberaren erantzukizunak” atalean (urteko kontuei eta legeria betetzeari buruzko fiskalizazioarekin lotutako erantzukizunak).

Urteko kontuei eta legeria betetzeari buruzko fiskalizazioan aplikatu behar ditugun eskakizun etikoekin eta independentzia babestearen arlokoekin bat, entitatearekiko independenteak gara, fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak exijitzen duen bezala.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia eskaintzen du legezotasuna betetzeari buruzko gure finantza-iritziari eusteko.





## V. Auditoretzako funtsezko gaiak

Auditoretzako funtsezko auziak dira, gure iritzi profesionalaren arabera, esanahi handiena izan dutenak 2022ko urteko kontuak direla-eta egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek urteko kontuen osotasunari buruzko auditoretzaren testuinguruan eta kontu orokorreari buruzko iritzia taxutzerakoan jorratu ditugu, eta ez dugu bereiz azalduko horien gaineko iritzirik.

Erabaki dugu gure fiskalizazioan ez dugula jakinarazi beharreko funtsezko konturik .





## VI. Nafarroako Kontseiluaren erantzukizuna

Kontseiluko lehendakariaren erantzukizuna da urteko kontuak egitea, eta Osoko Bilkurari aurkeztu behar dizkio onesteko. Kontseiluko legelariak prestatzen ditu kontuak, eta irudi zehatza eman behar dute Kontseiluaren aurrekontu-likidazioari, ondareari, finantza-egoerari eta emaitzei buruz, aplikatzekoa den informazio finantzarioko arau-esparruaren arabera. Bermatu beharko du, halaber, aipatu kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.







## VII. Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna

Helburutzat dugu arrazoizko ziurtasun bat lortzea, urteko kontuetan, oro har, iruzur edo errorean ondoriozko akats materialik ez egoteaz, eta kontu horietan islatutako jarduerak, aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta informazioa aplikatu behar den araudiarekin bat etortzeaz, arauzkotasunaren fiskalizaziorako gure txostena eman ahal izateko, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasun hori ziurtasun maila handia da, baina ez du bermatzen kanpo kontroleko organoen araudiari jarraikiz egindako fiskalizazio batek beti atzemanen dituenik akats materialak edo ez-betetze adierazgarriak. Akatsak iruzurraren edo errorean ondorio izan daitezke, edo legea ez betetzearen ondorio, eta akats materialtzat jotzen dira kontuen ganbera honen irizpideak aplikatuta, baldin eta zentzuz aurreikusi ahal bada txostenen erabiltzaileen erabaki ekonomikoetan eraginen dutela.

Fiskalizazioaren atal gisa, eta kanpo kontroleko organoen araudiarekin bat etorriz, gure iritzi profesionala aplikatzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan. Gainera:

- Iruzur edo errorean eta lege-urratzeen ondorioz akats materialak izateko arriskuak identifikatu eta baloratzen ditugu, auditoretzako prozedurak diseinatzeko eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta auditoretzako ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritziari oinarria emateko. Iruzurraren ondoriozko akats material edo ez-betetze bat ez atzemateko arriskua handiagoa da errorearen ondoriozko akats materialaren kasuan baino; izan ere, iruzurra dagoenean tartean izan daitezke kolusioa, faltsutzea, berariazko omisioak, berariazko adierazpen okerrak edo barne-kontrolaren saihestea.

- Fiskalizaziorako beharrezkoa den ezagutza lortzen dugu barne-kontrolari buruz, inguruabarren arabera auditoretza-prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez.

- Ebaluatzen dugu ea kontabilitate-politika egokiak aplikatu ote diren eta arrazoizkoak ote diren kontabilitateko zenbatespenak eta kudeaketa organoak horien arabera emandako informazioa.

- Urteko kontuen aurkezpen orokorra, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, emandako informazioa barne, eta ea urteko kontuek zehatz irudikatzen dituzten transakzioak eta azpian dauden egitateak.

Entitateko gobernu organoarekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haiek egiteko unea, fiskalizazioan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal ditugun barne-kontrolako akats adierazgarriak.





## VIII. Aurreko txostenetan emandako gomendioen jarraipena

Aurreko ekitaldietan egindako honako gomendio hauek indarrean diraute:

- *Nafarroako Kontseiluko plantilla organikoan dagoen lanpostu hutsa betetzeko deialdia egitea, sortu zenetik zerbitzu eginkizunetan bete baita, lanpostu hori behin betikoz betea izan dadin, aplikatzekoa den araudiaren arabeko deialdi publikoan.*

- *Langile-gastuen 1. kapituluan erregistratzea Kontseiluko kideek txostenen eta irizpenen egile gisa parte hartzeagatik jasotako konpentsazioei buruzko zerbatekoak, norberaren lanetik zuzenean eratorritako kontraprestazioak baitira.*

- *Kontabilitate- eta aurrekontu-kudeaketarako aplikazio informatiko bat ezartzea.*

Txosten hau, araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, auditore Begoña Herrera Isasi andreak proposatuta egin da, bera izan baita lan honen arduraduna.

*(Ignacio Cabeza del Salvador Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariak digi-talki sinatua marjinean adierazitako egunean)*



**1. gehigarria. Nafarroako Kontseiluaren 2022ko urteko kontuen laburpena****1.1 2022ko aurrekontuaren likidazioaren egoera-orria***Diru-sarreraren aurrekontuaren betetzea*

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Eskubide onartuak	Kobrantzak	Betetakoa (%)
4. Transferentzia arruntak	425.382	425.382	385.456	385.456	91
7. Kapital-transferentziak	28.000	28.000	5.608	5.608	20
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>453.382</b>	<b>453.382</b>	<b>391.064</b>	<b>391.064</b>	<b>86</b>

*Gastu-aurrekontuaren betetzea*

	Hasierako aurrekontua	Behin betiko aurrekontua	Betebehar onartuak	Ordainketak	Betetzea (%)
1. Langileria gastuak	205.012	205.012	154.121	154.121	75
2. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak	220.370	220.370	133.868	133.868	61
6. Inbertsio errealak	28.000	28.000	5.608	5.608	20
<b>Gastuak, guztira</b>	<b>453.382</b>	<b>453.382</b>	<b>293.597</b>	<b>293.597</b>	<b>65</b>

**1.2 Aurrekontuaren emaitza**

Kontzeptua	2021				2022			
	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehar garbiak	Doikuntzak	Aurrekontuaren emaitza	Aitortutako eskubide garbiak	Aitortutako betebehar garbiak	Doikuntzak	Aurrekontuaren emaitza
a. Eragiketa arruntak	391.491	284.000		107.491	391.064	293.597		97.467
b. Kapital-eragiketak	0	0		0	0	0		0
c. Merkataritza-eragiketak	0	0		0	0	0		0
1. Eragiketa ez-finantzarioak guztira (a+b+c)	391.491	284.000	0	107.491	391.064	293.597	0	97.467
d. Finantza-aktiboak	0	0		0	0	0		0
e. Finantza-pasiboak	0	0		0	0	0		0
2. Finantza-eragiketak, guztira (d+e)	0	0	0	0	0	0	0	0
I. Ekitaldiko aurrekontu-emaitza (I=1+2)	391.491	284.000	0	107.491	391.064	293.597	0	97.467
Doikuntzak								
3. Gastatutako kredituak, atxiki gabeko diruzaintzako gerakinarekin finantzatuak			0				0	
4. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze negatiboak			0				0	
5. Ekitaldiko finantzaketa-desbideratze positiboak			0				0	
II. Doikuntzak, guztira (II=3+4+5)			0				0	
<b>Aurrekontu-emaitza doitu (I+II)</b>				<b>107.491</b>				<b>97.467</b>





### 1.3 Diruzaintzako gerakinaren egoera-orria

Kontzeptua	2021	2022
1. (+) Funts likidoak	112.265	106.367
2. (+) Kobratzeko dauden eskubideak	82	82
(+) Ekitaldiko aurrekontutik	0	0
(+) Aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	82	82
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
3. (-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	4.856	8.982
(+) Ekitaldiko aurrekontutik	0	0
(+) Aurrekontu itxietatik	0	0
(+) Aurrekontukoak ez diren eragiketetatik	3.770	8.982
(+) Merkataritzako eragiketetatik	0	0
4. (+) Aplikatzeko dauden partidak	0	0
(+) Eginiko kobrantzak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0	0
(+) Eginiko ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	0	0
I. Diruzaintzako gerakina, guztira (1+2-3+4)	107.491	97.467
II. Finantzaketa atxikiaren gaidikina	0	0
III. Kobrantza zalantzarrikoko saldoak	0	0
IV. Atxiki gabeko diruzaintza-gerakina =(I-II-III)	107.491	97.467

### 1.4 Egoeraren balantzea

Aktiboa	2021	2022
<b>Ibilgetu garbia</b>	<b>18.045</b>	<b>17.286</b>
Altzariak eta tresneria	1.046	871
Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	9.927	12.879
Irudi korporatiboa	7.072	3.536
<b>Aktibo zirkulatzaila</b>	<b>112.347</b>	<b>106.449</b>
Diruzaintza	112.265	106.367
Epe laburreko zordunak	82	82
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>130.392</b>	<b>123.735</b>

Ondare garbia eta pasiboa	2021	2022
<b>Ondare garbia</b>	<b>125.536</b>	<b>114.753</b>
Ekitaldiko emaitza	107.491	97.467
Beste ondare-gehikuntza batzuk, emaitzei egozteke daudenak	18.045	17.286
<b>Epe laburreko hartzekodunak</b>	<b>4.856</b>	<b>8.982</b>
Foru ogasun publikoa, PFEZa dela eta	4.856	8.982
<b>Ondare garbia eta pasiboa, guztira</b>	<b>130.392</b>	<b>123.735</b>





## 1.5 Ekonomia eta ondare emaitzako kontua

Zor	2021	2022	Hartzeko	2021	2022
Langile gastuak	150.781	154.121	Diru-sarrera finantzarioak	0	0
Kanpoko lanak, hornidurak eta zerbitzuak	122.770	133.868	Transferentzia arruntak	381.041	385.456
Amortizazioa	4.393	6.367	Ibilgeturako dirulaguntzen emaitzen egozpena	4.393	6.367
<i>Aurrezkia (emaitza positiboa)</i>	107.490	97.467			
<b>Guztira</b>	<b>385.434</b>	<b>391.822</b>	<b>Guztira</b>	<b>385.434</b>	<b>391.822</b>

## 1.6 Ondare garbian izandako aldaketen egoera-orria

Deskribapena	Sortutako ondarea	Bestelako ondare-gehikuntzak	Guztira
Ondare garbia 2021eko ekitaldiaren bukaeran	107.490	18.045	125.535
2022ko ekitaldian ondare garbian izandako aldaketak	-10.023	-6.367	-16.390
Ekitaldiko diru-sarrera eta gastu onartuak	97.467	-6.367	
Jabea den entitatearekin egindako eragiketak	-107.490		
Ondare garbian izandako beste aldaketa batzuk			
<b>Ondare garbia 2022ko ekitaldiaren bukaeran</b>	<b>97.467</b>	<b>11.678</b>	<b>109.145</b>





## 1.7 2022ko eskudiru-fluxuen egoera-orria

Kontzeptua	2021	2022
<b>I. Kudeaketa-jardueretako eskudiru-fluxuak</b>		
A) Kobrantzak	257.694	252.853
2.Jasotako transferentziak eta dirulaguntzak	257.694	252.853
5.Kobratutako interesak eta dibidenduak	0	0
6.Beste kobrantza batzuk	0	0
B) Ordainketak	274.348	253.143
9.Hornikuntzak	37.526	40.762
10. Bestelako kudeaketa-gastuak	101.142	104.890
13. Beste ordainketa batzuk	135.680	107.491
<i>Kudeaketa-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+A-B)</i>	<i>-16.654</i>	<i>-290</i>
<b>II. Inbertsio-jardueretako eskudiru-fluxuak</b>		
C) Kobrantzak	0	0
1.Inbertsio errealak saltzea	0	0
D) Ordainketak	-10.449	-5.608
4.Inbertsio errealak erostea	10.449	5.608
<i>Inbertsio-jarduerengatiko eskudiru-fluxu garbiak (+C-D)</i>	<i>-10.449</i>	<i>-5.608</i>
<b>VI. Eskudiruaren eta haren baliokide diren aktibo likidoen handitze/gutxitze garbia (I+II+III+IV+V)</b>	<b>27.103</b>	<b>-5.898</b>
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren hasieran	139.368	112.265
Eskudirua eta haren baliokide diren aktibo likidoak ekitaldiaren bukaeran	112.265	106.367





## 2. gehigarria. Nafarroako Kontseilua

Kontseilua, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoan esaten den moduan, Nafarroako Foru Komunitateko organo aholku-emaile nagusia da, eta bere funtzioak autonomia organiko eta funtzionalarekin betetzen ditu, bere objektibotasun eta independentzia bermatze aldera.

Bere eginkizunetan diharduela, ordenamendu juridikoa gordetzen dela begiratuko du eta abaguneari eta komenigarritasunari dagozkien alderdiak baloratuko ditu, bai eta Administrazioak eraginkortasun handiagoa izatea ere bere helburuak betetzera-koan.

Nafarroako Kontseiluari buruzko ekainaren 9ko 8/2016 Foru Legean ezartzen denez, Kontseilua bost kidek osatzen dute, izen aitortua dutenak eta gutxienez ere hamabost urteko lanbide-esperientzia izan eta nafar izaera politikoa daukaten juristen artean izendatuak.

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak hautatzen ditu Kontseiluko kideak, zortzi urterako, eta ezin dira berriz hautatu.

Gaur egun, Kontseiluko bost kideetako hiruk hamar urteko antzintasuna dute haien karguaren jardunean; beraz, araudian ezarritako zortzi urteko epea gainditu dute. Hortaz, luzapen-egoeran daudenez, kargu horiek berritzeko prozedura abian jarri behar da.

Nafarroako Kontseiluko gobernu- eta erabaki-organoa Osoko Bilkura da, kontseiluko kide guztiek osatua. Kontseiluko kideek hautatzen dituzte lehendakaria eta idazkaria. Nafarroako Kontseiluko kideen ordainsariak dieta-sistema baten bidez ordaintzen dira eta kalte-ordain batzuk jasotzen dituzte txostenen eta irizpenen egile gisa parte hartzeagatik.

*Nafarroako Parlamentuari gomendatzen diogu mandatura beteta duten kideak berri-ritu ditzala, Kontseilua arautzen duen foru legeak ezarritakoaren arabera.*





### 3. gehigarria. Arau-esparrua

Honako hauek osatzen dute, funtsean, Nafarroako Kontseiluari 2022an aplikatzekoa zaion arau-esparrua:

- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzkoa.
- 8/2016 Foru Legea, ekainaren 9koa, Nafarroako Kontseiluari buruzkoa.
- 90/2000 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, Nafarroako Kontseiluaren Antolamendu eta Jardunbidearen Erregelamendua onesten duena.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, kontratu publikoei buruzkoa.
- 13/2007 Foru Legea, apirilaren 4koa, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzkoa.
- 18/2021 Foru Legea, abenduaren 29koa, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.







#### 4. gehigarria. Oharrak eta fiskalizazioaren aurkikuntza gehigarriak

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, Ganbera honen ustez fiskalizazio-txosten honen pertsona hartzaile eta erabiltzaileen-tzat interesgarri gerta daitezkeenak.

##### 4.1 Aurrekontu-likidazioa

- Kontseiluaren hasierako aurrekontuak 453.382 euroko gastuak eta diru-sarrerak zeuzkan; zenbateko hori behin betiko aurreikuspenekin bat dator.

- Kontseiluaren betebeharrak onartuak 293.597 euro egin dute, betetze-maila ehuneko 65ekoa izan da, eta horien ehuneko 100 ordaindu da. 2021. urtearekin alderatuta, ehuneko hiru egin dute gora, batez ere ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntetan izandako igoeraren ondorioz.

- Taula honetan jasota datoz Kontseiluak 2021ean eta 2022an izandako gastuen eta diru-sarreraren banaketa portzentuala:

Gastuaren izaera	2021	2022	Finantzaketa-iturria	2021	2022
Langileak	53	52	Transferentzia arruntak	97	99
Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	43	46	Kapital-transferentziak	3	1
Inbertsioak	4	2			
	100	100		100	100

- Eskubide onartuak 391.064 euro egin dute, haien betetze-maila ehuneko 86koa izan da eta guztiak ordaindu dira. Diru-sarrera horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik jasotako transferentzietatik datoz. Horietatik 385.456 euro gastu arruntak finantzatzera bideratu dira, eta 5.608 euro, berriz, inbertsio-gastuetara.

- Kontseiluak, araudiari jarraituz, 97.467 euro itzuliko dizkio Foru Ogasunari. Zenbateko hori, ondoren frogatzen den moduan, bat dator aurrekontuko superabitarekin:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Diru-sarrerak, guztira	391.064
Gastuak, guztira	293.597
Aurrekontuko superabita	97.467
Foru Ogasunari itzuli beharrekoa, guztira	97.467





#### 4.2 Langileria gastuak eta ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak

- Kontseiluko langileen gastuak 154.121 euro izan ziren 2022an, 2021ean baino ehuneko bi gehiago. Nafarroako Kontseiluaren 2022ko plantilla organikoa bi lanpostuk osatuta zegoen: legelari bat, zeina funtzionarioa baita (lanpostua hutsik dago) eta lehendakariaren idazkari bat, zeina izendapen askeko behin-behineko langilea baita. 2022ko abenduaren 31n, Kontseiluan bi langilek egiten dute lan: legelari bat, Kontseilua eratu zenetik zerbitzu eginkizunetan dagoen Nafarroako Gobernuako funtzionarioa, eta lehendakariaren idazkari bat.

- 2022an, Nafarroako Kontseiluak 42 irizpen eman zituen; 2021en baino bat gehiago. Kontseiluko kideei irizpen horiek egiteagatik ematen zaizkien ordainsariak 92.788 euro egin dute, eta bertaratze-dietek, berriz, 15.910 euro; guztira, aurreko ekitaldian baino ehuneko sei gehiago. Txostenak prestatzeagatik ordainsariak zuzen egozten zaizkio gastuetako 2. kapituluari.

- Ondasun eta zerbitzuetan egindako gastuek 133.868 euro egin zuten 2022an; 2021ean baino ehuneko bederatzi gehiago.

